

Idea

KTK enpresako partaideok ondorengo ideia garatu dugu: Afrikako ume behartsuentzat enpresa nazioarteko bat izango da. Hasieran, Afrikan zentratuko gara, baina etorkizunean beste hainbat lurraldetara zabaltzera sailatuko gara.

Sortuko dugun enpresa barnetegi moduko bat izango da; horrela, umeek barnetegian bertan egonaldia izango dute denbora jakin batez. Denbora horretan, haien bizitza aurrera eramateko aukerak emango dizkiegu.

Barnetegiaren hasierako gaitasuna Afrikako zonalde desberdinetako 100-200 haur eta nerabe izango da. Parte-hartzaileen aukeraketa honela egingo da: Afrikako hamar zonaldetara joango gara, eta zonalde bakoitzetik hamar haur edo nerabe inguru aukeratuko ditugu. Aukeratutako haurren artean, egoera okerrenean dauden hiru edo bost haur sartuko dira.

Bertan, ikasteaz gain, egunean zehar hainbat ekintza egingo dituzte, hala nola, fruituak eta barazkiak landatu, hautazko hizkuntzak ikasi edo elkarrekin jolastu.

Haur txikienek haurreskola edo lehen hezkuntzako ikasketak egiteko aukera izango dute; 12 urtetik gorako nerabeek, bigarren hezkuntzako ikasketak; eta 16 urtetik gorakoek, erdi mailako edo goi mailako graduak egiteko aukera izango dute. Haur guztiek, hiru hilabete behin, haien familiak bisitatzeko aukera izango dute.